

BERAKO MENDI MARATOI ERDIAN ETA GAZTE TRAILEAN IZENA EMATEKO EPEA ASTELEHENEAN, MARTXOAREN 11N, IREKIKO DA

Urte honetatik aurrera, ez da plastikozko edalontzirik emanen horniduretan, eta lasterkati bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du lasterketan

Apirilaren 14an, igandean, egingo den Berako Mendi Maratoi Erdirako izen-emateak datorren astelehenean, martxoaren 11n, 15:00etatik aurrera irekiko dira, www.pb-organisation.com webgunean .

525 dortsal eskuragarri jarriko dira. Dorsalak agortzen ez badira, izen-ematea apirilaren 10ean itxiko da.

Inskripzioaren prezioa 33 eurokoa izanen da korrikalari federatuentzat eta 35 eurokoa federatu gabeentzat. Izena emateko ez da beharrezkoa alde aurretik webgunean erregistratzea.


Berako Mendi Maratoi Erdia Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuituan sartzen da. Zirkuituak 22 proba ditu, eta Berakoa baliagarria izango da Nafarroako rankingerako. Urtean zehar, Zirkuituko lasterketa guztiak puntuatuko ditu, eta ekainean eta abenduan sariak emango dira erregularutasuna saritzeko.

GAZTE TRAIL

Aurreko edizioetan bezala, aurten ere Gazte Traila egingo da, eta izena emateko www.pb-organisation.com web-orrian izango da 7 euroen truke.

EDALONTZIRIK EZ HORNIDURETAN

Berritasun gisa, aurten ez da plastikozko edalontzirik egongo maratoi erdiko horniduretan. Lasterketak hartzen duen inguru naturalean ahalik eta plastiko gutxien erabiltzeko, parte-hartzaile bakoitzak bere edalontzia eraman beharko du, ibilbideko hamar horniduretan ura edo edari isotonikoz betetzeko. Mendiko lasterketetan gero eta ekimen iraunkorragoa eta arduratsuagoaren alde egingo du aurten Manttalek.



x

Manttale
Mendi Lasterketa Taldea



manttaletaldea@gmail.com
www.manttale.com